

SAGARRAREN ETA SAGARDOAREN KULTURA

Bizi Sagardoa Euskal Herriko sagarraren eta sagardoaren kultura eta turismoa bultzatzeko asmoz sortutako elkarte da. Euskal Herri osoko sagardogile elkarteak eta beste zenbait eragile biltzen ditu.

Milaka urte ditu sagarra eta sagardoaren kulturak eta historiak Euskal Herrian, eta Bizi Sagardoa elkarteak balioa eman nahi dio horri guztiari. Euskal Herriko sagarraren eta sagardoaren kultura ezagutaraztea eta horren inguruko turismoa bultzatzea da haren hel-

burua, eta haren asmoa da sagardoaren inguruko sorta turistikoak sortzea eta sustatzea. Elkartearen egitasmo nagusietako bat Sagardoaren Ibilbidea osatzea da, elkarteak berak eta elkarteko kideek eskaintzen dituzten zerbitzu eta produktu guztiak biltzen dituen.



Aramaioako Iturrieta sagardotegiko kideak sagarrak garbitzen. J.RUIZ / ARGAZKI PRESS

Gipuzkoako Sagardogileen Elkartea, Bizkaiko Sagardogileen Elkartea, Arabako Sagartzale eta Sagardogileen Elkartea, Nafarroako Sagardogileen Elkartea, Sagartzea Elkartea, eta zenbait udal, fundazio, museo eta bestelako eragile biltzen ditu Bizi Sagardoa elkarteak. Hirurogei kide baino gehiago dira guztira. Bizi Sagardoa elkarteak 2013ko apirilaren 15ean aurkeztu zuten Donostiako Aquariumean.

Gaur egun, badira Euskal Herri osoan sagardoaren inguruko eskaintza turistikoak duten udalerrak, museoak, sagardotegiak eta abar, eta bisita gidatuak, dastatze gidatuak, sagardo egunak eta beste hainbat ekitaldi antolatzen dituzte. Bakoitzak bere aldetik lan egin beharrean eta elkarrekin indar handiagoa izateko, Bizi Sagardoa elkartera bildu dira elkarlanean aritzeko. Elkarlan horren ondorioz, zenbait proiektu martxan jarri dituzte jadanik, eta aurtengo txotx garaian beste zenbait antolatuko dituzte. Turismo aldetik indar handia duen ekintza baita txotxa, eta urtero 800.000 bisitari baino gehiago biltzen ditu.


Halaber, bisita gidatuetara eta dastatze gidatuetara gero eta jende gehiago biltzen da, sagardo egunetara eta sagardoaren inguruko beste hainbat ekitalditara ere bai, eta sagardotegiek eta bestelako eragileek ere gero eta eskaintza zabalagoa dute sagarraren eta sagardoaren munduari lotuta. Hala, sagarraren eta sagardoaren kulturaren inguruko sorta turistikoak eskaintzea da Bizi Sagardoa elkartearen asmoa.

Bizi Sagardoa elkarteari buruzko informazio gehiago sagardotegiak.com/eu/asociacion-sidra-natural/ bizi-sagardoa helbidean lor daiteke.

XVI. mendetik sagardotegia



Gartziategi baserria • 943-46 96 74 • ASTIGARRAGA



Ostiraletan,
28 euroko menutik
3 € Astigarragako
AEKrentzat izango dira, aek@ipintza.com helbidean erreserbatuta



Santio zeharra, 12
Astigarraga
688 811 724
www.ipintza.com